

EUSKO JOLASEN TXOKOA

Berriro, atzeratua izan da ARRUIZ-ALDAZ bi korrikalariak alkarren aurka ikusiko diran eguna. Len, Arruizkoak eskatu zuan atzeratze ori. Orain, Aldatzek. Dirudinez, biak sasorik onenean egon gabe ez luteke enparantzara irten nai. Ta ala obe danentzat, berretzat eta ikuslentzat.

Otsail ontan, gazte jendien zenbait ekite bikain ikustekoak gera. Bai. Bi joku bikain ikusteko epea izango degu. Bata, illaren bederatzietan. Azkoitiko frontoi munizipalean izango da, Elgoibartar bi baserritarrek, bata Irunazo baserriko Joxe Ansola ta bestetik, Bialingo Antton Egaña. Dirudinez, oraindik soldaduskara sartu gabe daude biak. Zortzi arrobako arrikin jokatuko dute, ain zuzen ere. Ogei ta bostna milla peza jokatzen dituzte. Urrengo igandea aukeratu dute len aitatu ditudan Arruiz eta Aldatzek alkar ikusteko.

Il heronen ogei ta iruan, alde batetik Asteasuko Joxe Mari Sarasola «barrazpi», eta bestetik, Debako Joxe Mari Agirre alkar neurritu dira eun eta ogei ta bost kiloko arri kubikoakin. Nun...? Oraindik erabaki gabe dago ori. Lau plaza aukeratu dituzte ta auen artekit, kondizio ta erretxasun onenak ematen dituanarena joango dira. Ogeina milla peza jokatuko dituzte. Auek biak ere, oraindik soldaduzkara joan gabe daude. Orain artean, ez da Euskalerriko edesti osoan alako demarik ikusi bat edo beste soldaduzka pasa aurretik. Gure eusko jolasak jaletan daudela dirudi Indarherritzen.

Denok ezaguna degu Usategietak, Agerre bigarrenari bota dion erronka: bi minutuko iru txandetan, zortzi arrobako arriakin nor gela-go. Bakoitzak bere gisa moldatu bearko luke, inoren laguntzarik gabe. Au izan zan Usategietak jarritako aukera bere kondizio ta guzti. Agerre bigarrenak esan digunez, Usategietaren erronka onartzen du bere kondizio guztiatan. Nun eta noiz jokatuko alkar itzartuta erabakiko dute. Dana dala, esan digunez, Maiatz aldega garai polita iruditzen zaio. Dirutan, etsaiak jartzen diona

jokatzeko gertu dago, naiz berrogei ta amar, naiz eun milla. Baña biak, erreglamentuaren legea bear bezela betetzeko itza eman bearko dute. Batak eta besteak. Askotan, ekibizioak ikusten ditugunean, ez dute arrijasotzailleak arria lurrean unetro batean gelditu izteko oiturririk izaten. Batzik, bota bezin lax-



ter, gelditu gabe, artu berriro ta bizkarreratzen dute. Ori ez dago legeekin konforme ta esan degunez, biok erreglamentuaren ondorioak onartu bearko dituzte. Txanda batetik bestera, zapi minuturen tartea utzi bearko da: legeko bost minutuak eta etsaiak altxatzeko bear dituan bi minutuak. Beste aldetik, Agerre bigarrenak, onoko epe an jartzen dio Usategietari: nai badu alkar ikusi minutuko iru txandetan, eun kilotik asita eun da faroegi ta bost arteko arriakin, gertu daukala jokatze. Txanda batetik bestera, sei minuturen tartea utzi bearko litzake. Bost minutu legekoak eta etsaiak bere jardunaldian bearko duan minutua.

ETXEBERRIKO G.

GILLEN TELL...

lik ez dute aintzat artzen. Frantzez eta italeraz artu bear izan genitun. Ta, aurrez irakurri ezker oso errez ulertzen da bertako gaiaren mamia. Mimika aberatsa du, eta liburuxka gabe ere ez litzake gaitza ongi konprenitza.

Izatez, gaitzokeriz justua ez dan indarra uxatu eta egiazko justiziarren alde jokatuko zuan erriari omenaldi bat da. Bere

libertade eskubideak azalduz, bidebatez gizon bakoitzari berea emanaz. Erri guztiak eta gizon zuzen guztiak mende guztiatan munduan opa izan dituzten libertade legeen omenaldi zintzoa.

Geure bitzitza guzian, nekez aitzuko zaigu jaialdi eler ura.

J. SAN MARTIN

EUSKAL DISKO BERRIA:

EGUBERRI ABESTIAK

Abeslari: Sine Nomine Abestalde

Bakarka abesten: José María Ustoa Maritxu Ezcurra ta José María Etxebeste

USANDIZAGA DISKO-ETXEA EGIÑA

ATAJAS MAU.

USANDIZAGA ob obesa

IEROSI GUZIOK EUSKAL DISKO AUI

LASARTE'N IX'GN ALDIZ NAZIO-ARTEKO «CROSS» BERRIRO MAMO WOLDE IRABAZLE OSPETSU

Lengo urtean, VIII'gn. aldian izan zan bezelako egualdiarekin (gutxi gora bera 0) lengo urtean gertatutakoa berriro da, au da, ain jator dan Mamo Wolde beltzaren irabaztea; benetako irabaztea, bigarren bueltarako sendotuta zegoana. Ordurako bere laisterketa ariñ eta bizkorrarekin bere ta bere lenengo atzekoen artean metroko jartzen asia zan. Auen artean arkitzen ziran «Real Sociedad» eko Aguilar, Batty ingelesa, Haro ta

Arizmendi'rekin batean. Bazijoazten kilometroak aurrera eta buru bezela Wolde'k jarraitzen zuan, bañan bere atzekoen artean burruka berotzen zijoan; burruka onek une txar batean artu zuan Aguilar eta orregatik Aguilar'ek etzuan protxu aundirik atera. Bañan etzizaien ori gertatu Haro ta Arizmendi'ri, batez ere lenengoan, lengo urteko marka ere autsi baizuan; Arizmendi ere oso trebe egon zan, gañera garbi adierazi digu atleta onen etorkizuna «Cross» ean dagola, ez pistan, ez baititu pistetan aparteko markik egiten.

Beste arteko talde batean Bikila zijoan. Laisterkari benetakoa bezela azaldu zigun, lengo 19'an Elgoibar'en azaldu zigun bezela. Poliki bañan seguru, batere al-daketarik gabe, marathón lan jatorra bezela. Ain aldaketarik gabe egin zuan laisterketa, bukaeran bere atzetik zijoazten bik errez pasa zioten.

Mamo Wolde'ren eguna eta FAC'en eguna eta batez ere Gipuzkoa'ren eguna. Zorionak danentzat!

Saizarbitoria'tar Erramon'k

MEZA

Datorren igandean, otxaillak 9, eta goizeko amalketan, Donostia'ko Santa Teresa elizan, meza bat emango da Zinkunegi, Zarautz'ko sendagille zanaren arima alde.

Bere adiskide eta ezagun guztiel adierazten diogu elizkizun ontara etorri ditezten.

Kirola munduan

FUTBOLA

URPEKO ARRANTZA

De Diego «Real Sociedad»eko futbolaria izatera iritzi da.

Lev Yachine'k Montevideo'ko Peñarol taldean sartuko dala esan da. Ala ere Errusia'tik etorri diran berriak ezezkoea esaten dute.

Koparen txapelketarako maiatzaren 3'an eta 10'an «Real Sociedad»ek «Levante»rekin jokatu bearko du. Baiza ere egun oietan jokatuko dira, Alaves-Betis, Real Madrid-Indaucha ta A. Bilbao-Celta.

Matosas izeneko futbolari uruguayoa Peñarol taldetik River Plate'ra pasa da 33 milloi «peso» izeneko diruagatik.

Santander'ko futbolari dan Abel'en atzetik dabilta «Español» eta «A. de Madrid» taldeak.

AUTOMOBILISMOA

Inglaterra'ko Padd eta Kapkirik izan dira Montecarlo'ko XXXIII'gn. Rallye irabazi dutenak Morris Coopers batekin. Azkeneko bi urtetako txapeliduna Erik Carlsson, irugarren lekuan gelditu da Jungfeldt'en atzetik.

NEGUKO OLINPIKO JOKUAK

Insbruck'eko pistetan salatzen arizan batean, akzidente bategati Polonia'ko Skrzybecki ill egiñ da.

Oyal s. a.

Oyal eta sforru almazena

Paregabeko ta bikaiñenak

Telefonua 14304

Garibay, 4

DONOSTIA

ARANZADI'tar J. M.

Era guzietako seguroak

Barzelona'ko «LA CATALANA» Seguroetako ordezkaria Gipuzkoan

San Marcial, 33 enbia - Urretziñña 19226

DONOSTIA

GURELESA

GIPUZKOA'KO TA NAPARROA'KO ESNE ONENAKIN GERTUTAKO ESNEKIAK: ESNE PASTERIZATUA, ESNE SOILLA, ESNE-AUTSA, ESNE-GAINA, GURINA TA ABAR. EGUNGO EGUNEAN, LURBIRA OSOKO-ERRI AURRERATU GUZTIETAN, ONELAKO ESNE TA ESNEKIAK BAKARRIK ERABILTZEN DIRA

GURELESA